



Mikel Askatsua Blazquez

Bergara, 1984. Ingeniaria.
Ez dut gailu elektronikorik
erosi azken bi urtean.

Ilustrazioa: **Cristina Fernandez**

Mikel

Pixelezko arnasa

Jaingoak atea ixtean leihoa zabaltzen zuen moduan, badirudi postmodernitateak sakelako telefonoa oparitu digula etorkizun baikorra asmatzeko gaitasuna galdu dugunean. Leiho berritik sartzen saiatzen dira aurreko gauza txiki guztiak, betikoak, bizitza; baina bizkorrago, intentsuago eta sekula baino orduz kanpoago. Ertz bikoitzeke labana baita smartphonea: infernuaren ataria edo ihesik ederrenaren gelaurrea.

Cambrilseko apartamentuko balkoian egon zintezke, eguzkia goian, igerileku epela behean, egunkaria aurrean eta mugikorra aldamenean, aparatuko kanpai soinu labur bezain ergel horrek bizitza hankaz gora jarriko dizun mezua iragartzen dizunean. Oporrak ez dira jada garai bateko burbuilak, puxika hauskorrak dira gehienera: berri terrible zorrotzaren mehatxuan gehiegi puztuz gero, arnas sako-nerako estuegi derrigorrean. Badirelako mezu apokaliptiko posible bat baino gehiago telefonoak estaldura izatearen zain, mendi-gainetako seinale errepikatzaileen artean karamilatuta: ariketak ez du irudimen gehiegi behar zure burua berriz bulegoan presazko zenbakiaren bila Excel fitxategi artean, etxera bueltan atestatua egiteko prozesuan, edo, txarrean jarrita, ospitaleko besaulki deserosoan gaubeilan imajinatzeke.

Garai batean albisterik txarrenak zorterik onena behar zuen telefono hariaren bestaldean Cambrilsen aurkitu zintzan, eta ez zen horren arraroa desgiziak itzulerara arte errespetatzea. Zer esanik ez posta zerbitzuak eskuz idatzitako gutunak soilik banatzen zituenean. Desgiziek errespetua galdu duten garai hauetan, balkoia ez da agian kolpea jasotzeko lekurik aproposena. Mediterraneoko kostaldean pertsonen burua galtzen dute sarriegi eta salto egiten dute deskuiduan balkonging delako psikopatologia medio. «Giri nerabe artaburuak», pentsa zenezake, baina zer zara zu Cambrilsen hogeita hamar urte bete berri di-tuen kanpotarra baino.

Apartamentura sartu eta komunak eman lekiok norberari balkoningaren aurkako babesik egokiena, bertatik jauzi egiteko leihorik ez du bederen. Fluoreszentea goian, Roca tronua behean eta telefonoaren pantaila parean, patuak itxaron dezake kakaldiaren parentesia mezu larrigarria irakurri aurretik. Sarrera berria iragartzen duen boro-bil gorridun ikonoa saihestuta, mugikorraren pantailak entretenitu zaitzake, oporretan zaudelako. Horretarako, atzamarrarekin modako bideo-jokoaren ikonoa zanpatzea ez da erabaki txarra. Mugikorreko joko berrian, armak aurkitu eta elkar akabatu behar duzue uharte birtualean aur-

kitu zareten ehun ezezagunek, irabazle bakarra geratu arte eta gerra-zelaia estutzen doan bitartean. Baliteke, gainera, joko horretan dozenaka orduz babestu izana honezkero, eta pronostiko guztien aurka birtuosoki etsaiei egurra ematea: eraso teilatutik salto eginda, beldur gabe; tiroa kopetara, ziurtasunez; atsedean justuak, estrategikoki. Pixelezko zerua goian, uharte birtuala behean eta garaipen dantzarako azken lehiakidea jomugan. Ez legoke gelditu zintuzkeenik, arnasa har zenezake arro eta luze. Pixelezko arnas batek 80ko hamarkadan jaiotako milleniala bete lezakeen modu arraro hori: bi hamarkada lehenago jaiotako gazteen heroina txute digitalaren edo duela lau hamarkada ernatutakoaren Londrerako bereizmen altuko bidaia hippyaren parekoa.

Baina guztiak, betiko izango bada, iraun egin behar du. Hor nonbait jo lezake hil kanpaiak, soinu labur ergelak. Inprimatuko da jokoaren irudiaren gainean, sakelakoaren pantailan, oraindik irakurri ez duzun mezu terriblearen jarraipena, erronkako azken lehiakideak segidan akaba zaitzan. Eta pentsa zenezake hil kanpaiak ez duela dagoe-neko Londresen jotzen, bideo-joko berrian sekula joko ez duen legez; etengabeko kanpaikadak liratekeelako, esaje-razio hutsa. Modernitatea horixe delako agian: gauza txi-kien, betikoen ezabatzea. Pantailaz kanpoko bizitzaren gehiegikeria saihesteko ahalegina.

Bigarren mezuak «... honezkero» esan lezake, horrela irakurri duzu. Eta jarriko da martxan zure irudimena berriro: «ez haut maite» honezkero; «hil da ama» honezkero; «erre zaizu etxea» honezkero. Irakurtzeke duzun lehen-dabiziko mezuaren balizko permutazio guztiek ozenegi iradokiko lukete oporrak lehertu direla, eta zure bizitzaren pusketa bat berarekin batera, pusketa handiegia behar-bada.

Berriz oroitu zenezake zure heldutasun eskasa eta giria baino ez zarela Tarragonèsean. Ipurdia garbitzeke, lehen-dabiziko mezua irakurri gabe eta pixelezko xiringa oraindik besaurrean, korrika egin zenezake balkoirantz zuzen-duta. Beldur gabe, ziurtasunez, estrategikoki.

Baina, zorionez, ez da inongo mezurik iritsi, ez zara ko-munera joan eta ez duzu “Fortnite”-n, joeran dagoen bi-deo-jokoan, zure bizitzako partida jokatu. Pretentsioz ase-tako testutxoak irakurtzen amaitu duzu eta irribarre egin ezpainetako ertz bakarra bihurrituta. Eguzkia goian, ige-rileku epela behean eta egunkaria parean, buelta eman diozu paperezko orriari, hurrena zein leiho zabalduko.

«Ding!», jo du kanpai soinu ergelak.